

# FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure produktua aurrera eraman ahal izateko eta horrela irabaziak atera ahal izateko hainbat irizpide txikitan jarri beharko dugu arreta, proiektu borobil bat osatzeko. Horretarako jendeari gure produktua egonkorra eta fidagarria dela erakutsi beharra diegu. Erosleak gutaz eta gure produktuaz fida daitezen puntu txiki batzuk bete beharko ditugu, horrela erosleei atentzioa deituz eta gure produktua gehiago salduz.

Horretarako, taldekide bakoitzak zeregin desberdin batzuk bete beharko ditugu. Taldekide bakoitzak trebetasun desberdinak ditugunez, bakoitza bere abilezia horretan zentratuko da. Normalena da lan batzuk beste batzuk baino zailagoak izatea, beraz, taldekideon artean lagunduko gara, funtsezkoa da talde bat izatea eta taldekideei laguntza ematea.

Yasser eta Cristina harremanetaz arduratuko dira, hau da, lokalean geratuko dira bezeroen deiak hartzen eta dituzten dudak argitzen lagunduko diete. Bestetik bezeroen bat lokalera etorriko balitz produktua ikustera edo zalantzaren bat argitzera beraiek arduratuko dira.

Alde batetik, salmentarako eta garraiorako iada badugu prestakuntza, beraz guk egingo ditugu lan horiek. Garraioareta Aitzol arduratuko da, erosi beharra dagoen furgoneta garraiatuko du, DTC enpresan piezak jaso eta almazenera eraman ahal izateko, eta bertatik Daciara edo beste erosleengana eramateko.

Bestalde, Maddik eta Urkok bezeroekin harremanetan jarriko dira, Maddik inmobiliaria batean lan egin zuen, beraz badaki nola komunikatu bezeroekin eta hauek nola konbenzitu. Urkok, dugun produktua zer den eta nola funtzionatzen duen ongi daki, hortaz, DTC enpresarekin kontaktuan jarriko da, berrikuntzak edo aldaketak egin beharko balira.

Lehen hilabeteetan, ez dugu diru kantitate handirik lortuko, gastuak ordaindu beharko ditugulako hain zuzen. Baina produktua saltzen goazen eanean pixkanaka-pixkanaka etekinak ateratzen joango gara taldekide bakoitzak hilabetez 1.800 euro irabaziz. Publizitateari esker jendearen atentzia erakarriko dugu horrela irabazi gehiago edukiz.



